

# 4. PROKLAMA

## lantegiaren eta topaketaren programa

### HARRESPILA (4. PSIKODRAMA)

**Espe López eta Oscar Gómez Mata-k zuzendutako laborategia/L'Alakran Konpainia**  
**Artium**, Ekialde Goikoa eta Behekoa aretoetan, apirilaren 20tik 25era, 10:00etatik 17:00etara  
Plaza mugatuak, hiriko 8 sortzaileentzat. Informazio gehiago: [proklamar@gmail.com](mailto:proklamar@gmail.com)

### ELKARLANEKO PRAKTIKAK, ZOROEN MUNDUAN

#### Aurkezpena La Rara Trouperekin

**Artium**, Plaza aretoan, apirilaren 24an, ostirala, 18:30ean. Sarrera doan.

### HARRESPILA (4. PSIKODRAMA)

#### Happening-performatikoa/L'Alakran Konpainia

**Artium**, Ekialde Goikoa eta Behekoa aretoetan, apirilaren 25ean, larunbata, 15:00etatik 21:00etara  
Beharrezkoa da aurretik izena ematea. Informazio gehiago: [proklamar@gmail.com](mailto:proklamar@gmail.com)

### DESAGERPENA

#### Irakurketa-ibilbidea, Marc Vives-ekin

**Artium**, Aurreko plazan, apirilaren 24an, ostirala, 21:00etan. Sarrera doan.



Zerbait ozenki esatea. Zerbait adierazteko, toki bateratu bat aldarrikatzeko, ahots edo oihu andana igortzea. Zerbait modu argian eta jendaurrean esatea. Gobernu bat edota gertakizun bat hotsandiz adieraztea. **4. Proklama** honekin lantegi eta topaketa-programa batekin jarraituko dugu Vitoria-Gasteizen, eta galdera honetara itzuliko gara: «Gu, herria», zein neurritan da ariketa performatibo bat? Galdera honek Judith Butler-en testu batean, «*Gu, herria*». *Bilera-askatasunaren inguruko gogoetak* du jatorria: «"Gu, herria" herriaren subirotasun modu baten enblematzat jotzen dugun esapide bat da, zeinak inplikatzeko baitu pertsonen modu politiko anitzean elkar daitezkeela eta elkar izenda dezaketela. Horrek ez du esan nahi, ordea, guztiak bat datozenik, baizik eta jabetzen direla autoberrespena prozesu kolektibo eta partekatua dela».

Proklamaren edizio honetan, arreta jarriko diegu, halaber, komunitatearen mitoari eta haren baitako mamuei.

**Harrespila. (4. PSIKODRAMA).** "Harrespilak harri txikiak dira, zirkulu oso intimo bat, txikia, marrazten dutenak; bi eta bost metro arteko diametroa dute, eta hutsik egoten dira barrutik", Jorge Oteiza. Psikodrama honek (sail honetako 4.a da) "La Falta" du izena. Laborategi psikodramatikoa honen gako gatazka bat partekatzean eta gatazka horri irtenbidea elkarrekin bilatzean dago: arazo partekatu batetik abiatuta eraikitzean. Ikusleak osatuko duen misterio bat aditzera emanez bezala dihardu artistak. Ikusleak/parte-hartzaileak zerbait egingo du, esku hartuko du ekintzan. Azken egunean, *Harrespila (4. psikodrama) happening-performatikoa* aurkeztuko da, 30 minutuko banakako tailerretan (artista bat/parte-hartzaile bat). Artiumeko areto batean harrespila egitea izango da helburua.

**Oscar Gómez Mata** (Donostia, 1963) Genevan bizi da eta han egiten du lana (Suitza). Antzezle, zuzendari, idazle eta eszenografoa da. Legaleón-T taldearen sortzaileetako bat izan zen, eta orobat sortu zuen L'Alakran taldea (1997). Europan eta Hego Amerikan garatzen du bere lan artistiko eta pedagogikoa. L'Alakran taldearekin, besteak beste honako ikuskizun hauetan lan egin du Gómez Matak, obrak eszenaratzen eta antzetzten: *Carnicero español* (1997), *Psicodrama* (2012), *A casa de Antaño* (2013). Haren zenbait ikuskizun eta performance aurkeztu dira nazioarteko jaialdietan, erakunde frantses eta suitzarrak produkzioan lankide zirela. *Psikodrama* Oscar Gómez Mata/L'Alakranen proiektu bat da. Harrespila egiten lankide izan dute

**Espe López** (Irun, 1963). Nagusiki Genevan trebatutako artista da Espe López, École de Théâtre Serge Martinen ikasia hain zuzen, eta hainbat profesionalekin ere jardun du prestakuntza osatzen Frantzia eta Espainian. Legaleón-T Teatro taldearen sortzaileetako bat da (1986). 1997. urteaz geroztik, modu aktiboan dihardu L'Alakran suitzar taldean. Beste talde batzuekin ere aritzen da, esate baterako Dans le sens opposé, Le vent des signes eta Antzerki Ola Imaginarioa (FTI) taldeekin. Profesionalentzako antzerki-ikastaroak ematen ditu ikastegi profesionalean, taldeetan eta eskoletan.

**Elkarlaneko praktikak, zoroen munduan. La Rara Troupe** konpainia lankidetzaren espazio askotariko eta konplexu bat lantzen ari da 2012az geroztik, adimen-osasuneko diagnostikoa duten eta ez duten hainbat kiderekin. Taldeak ikus-entzunezkoa erabiltzen du bere burua aurkezteko eta iruditeria birlantzeko tresna gisa, baita gure topaketetan kritiko bihurtu eta aktibatu nahi dugun diskurtso baten bitarteko gisa ere. Hitzaldi-aurkezpen honetan, taldeak zer ibilbide egin duen eta zer ikaskuntzatan gabiltzan ikusiko dugu, material propioen proiektzioen eta parte-hartzaileen elkarriketen bidez. **Belén Sola** (MUSACEko Hezkuntza eta Kultura Ekintza Sailaren arduraduna) eta **Chus Domínguez** (artista bisuala) dira proiektuaren koordinatzaileak.

**Desagerpena** ikerketa gisa planteatzen da: une jakinetan ireki eta askotariko moduetan agerian gelditzen den ikerketa gisa. Material landugabea testu zati batzuek osatua da: desagertze bati buruzko testuak dira, askotariko ikuspegietatik mintzo direnak, hala nola, hizkuntzalaritzatik, soziologiatik, feminismitik... Interes subjektibo eta pertsonal jakin batzuek bultzatuta mailegatu eta bildumatutako material hori halako eragabete eta kontrolik ezera eramaten da, non galdu egiten baitu justifikazio oro eta hartzen baitu nortasun berri bat. **Marc Vives** (Bartzelona, 1978) artista bisuala da. Gaur egun, "The Wilson Exercises" proiektuaren amaierako fasea lantzen ari da, Anna Craycroft artistarekin batera (Rivet da komisarioa). Stavangerreko Rogaland Kunstsenter (Norvegia) eta REDCAT (Los Angeles) bisitatu ondoren, hil honetan amaituko da proiektua, ESPAI 13 -Fundació Miró gunean (Bartzelona), Azotea taldearen zikloaren barruan (Ane Agirre/Juan Canela). Gaur egun, pedagogia, praktika artistikoa eta NauEstrucheko kuradoretza uztartzen ditu.

Proklama Artiumek eta AZALAK lankidetzan antolatzen duten arte bizien inguruko egitarau sorta da.  
Egitarauak **5. Proklamarekin** jarraituko du, 2015eko ekainaren 22tik 27ra

## Hutsalaren konkista

[Hitzaurrea]

Zergatik ez dakidala, luzaroan, ezin izan nuen irakurri ere egin *Fitzcarraldo* errodatzen ari nintzela idatzitako egunerokoa. Gaur, ordea, hogeita lau urte igaro direlarik, prest naiz haren irakurketari ekiteko, nahiz eta ez zaidan izan batere erraza neure letra deszifratzea, neurri mikroskopikoa baitzuen garai hartan.

Testu hauek ez dira errodatzeari buruzko txosten bat –aipatu ere, doi-doi aipatzen da errodatzea bera–, eta adiera zabalenean soilik esan liteke eguneroko bat direnik ere. Bestelako zerbait baitira: barne-paisaiak dira gehiago, oihaneko eldarniotik sortuak. Ez nago, dena den, horretaz ere oso ziur.

*W.H, 2004ko urtarrila*

[Sarrera]

Ikuspegi batek hartu ninduen mendean, txakurraren amorru asaldatuaz, orein jada hilaren hanka hozkada batez nola heltzen eta animalia eroriari nolako indarrez tira egiten dion ikusirik ehiztariari txakurra baretzeko saiakera orori amore emanarazterainoko asalduraz: lurruntzi izugarri baten irudia, mendian. Itsasontzi bat, lurrunari esker eta bere indarraz, oihaneko aldapa malkartsu batean gora sigi-sagan igotzen, eta, nola kexu direnak hala adoretuenak ankertasan beraz suntsitzen dituen naturaren gainetik, Carusoren ahotsa entzuten da, isilarazten baititu oihaneko animalien min eta intziri oro, eta itoarazten txorien kantua. Hobeto esanda: txorien oihiak, Jainkoak suminaldi batean amaitugabe eta abandonaturik utzitako paisaia honetan ez baitute kantatzen txoriek, minaren minez oihiu egiten baizik, eta zuhaitz nahaspilatuak zaizkio elkarri oldartzen beren atzapar erraldoiez, ostertzaren mutur batetik besteraino, osatu ez zen sorkuntza baten lanbroen artean. Lainoz arnasestuka eta akituta zutitzen dira zuhaitzak mundu irreal honetan, miseria irreal batean; eta ulergaitza zaidan hizkuntza arrotz bateko olerkiaren ahapaldian bezala, hantxe nago ni, ikara gorrian.

[Caracas, 21/6/79]

Inor ez zait bila etorri. Iritsi bezain laster, pasaportea konfiskatu didate, ez zuen-eta bisarik; alde egiterakoan itzuliko didate, ustez. Aleman itxurako gizon batzuk zebiltzan hor zehar zokomiran, iritsi berriei begira-begira, baina ez dut izan haiei hitzik egiteko adorerik.

[Iquitos, 28/6/79]

Makalaldia goizean. Alde egitea? Hainbeste hilabetez lanean jardunda? Gripe arina, muki-jarioa. Fitzcarraldoren itsasontzia oihanean, Puerto Maldonadotik hurbil. Begiratokia Tres Crucesen. Helizea moldeatzea. Izurdeekiko istorioa. Greban diren maisu-maistrek itxialdia hasi zuten orain hamar egun elizan, eta kanpaiak jotzen dituzte. Tximu errea jan dut azokan; haur biluzi bat zirudien.

[Iquitos, 13/7/79]

Postetxeko telex gailua, kanpoko munduarekin komunikatzeko bide bakarra, hondatu egin da atzera ere, eta teknikari batek desmuntatu egin du; berriz funtzionatuko ote duen, eta noiz, batek daki. Eguerdiko bero oskarbian, alfergura hezea, astuna, itogarria. Nire burua nire bildutasunetik irtetera behartu, eta Nanay ibairaino joan naiz. Hautsa, beroa. Begira-begira ditut paper zuriak. Eguzkia jaisten hasi berritan itzuli naiz. Arratseko argipean urre hautsaren modura distiratzten diren eltxo batzuk jauzi egiten dute belar artean urrats bakoitzean. Oiloak hesira etorri zaizkit enkontrura.

[\*\*\*]

Pasarteak. Bi aste, Camisea ibaian. Iquitosera itzulita, termitaz josita topatu du etxolako arasa txikia; kendu egin behar izan ditut liburu apurrak, irratia, gutunak eta koadernoak, eta, azkenari, gain-gainean zegoenari, azala ere jan diote, plastikoz gainestalita egon arren. Esaldi bakarrak dirau bizirik: “... ekaitza dator. Gorrotoa irakiten da oihanaren gainean. Non galdu dugu, historiaren sakonean, hitz doilorra?”.

[Camisea, 1/5/81]

Ahazteko moduko eguna. Ideia argirik gabe errodatzen aritu gara; lur-mendixka baten gainean, zutik, liskarrean ibili naiz W-ekin; Mauchek direnak eta ez direnak esan ditu W-ri buruz; berri nahasiak iritsi dira New Yorkeko laborategitik; Kinski, zaputzean; Gloriak ihes egin dio W-ri, goizean goiz alde egin du kanpalekutik, alabarekin, baina arratsaldean itzuli da. Zapatak bota ditut; erabat deseginda zeuden-eta, halere, eta oinutsik ibiliko naiz gaurkoaz geroztik, denbora batez hemen bizitzen den oro bezalaxe.

[Iquitos, 12/7/81]

Ez dago argirik, ez dago urik; dena besterenduta, abandonatuta, hutsik. Atzo arratsaldean luze jardun nuen Vignatirekin berrietan. Itsasontzia mendi-gorenean dago, eta W-ren asmoa da hura nolabait eta berehalakoan arrastaka jaistea, edo, hobeto esanda, Urubamba aldera labainaraztea, txirriken eta altzairuzko heldulekuen hilabete askotako alokairua aurreztu ahal izango genukeelako horrela, baina Urubambak, hamar edo hamabi metroraingo sakonera izan dezakeen arren, doi-doi du berrogeita hamar zentimetrokoa itsasontzia sartuko litzatekeen tokian, eta horrek esan nahi du itsasontzia urlasterrean zeharka utzi behar izatea urrira arte, gutxi gorabehera. Hondoak joko luke, sakon jo ere, eta uholde handi batek txiki-txiki egingo luke. W-k ez daki, gainera, zer-nolako hondamen-egoeran dagoen Kinski barrutik, Estatu Batuetara itzuli dena, bestalde.

[Camisea, 3/11/81]

Goizean, bidezidorrean gora igo naiz. Kontu handiz jaitsi dugu itsasontzia, tarte gero eta txikiagoak eginez, Urubambaraino ia. (...). Gure helmugatik hain hurbil egonik, makina erabat higitzen utzi dut, axolagabe: beldar-katezko traktorea itsasontziaren brankatik tiraka ari zen bitartean, gero eta gehiago hausten ari zen txirrika-sistemako burdinurtuzko txirrika-gurpiletako bat, zeinaren zatiek buztin irristakorraren gainera jauzi egiten zuten gori-gori eta txistuka, eta hala ere, tiraka jarrai zezaten utzi dut. Gero, dena isilik gelditu denean, lehen aldiz ikusi dut *boritador* txori herabetia, hain oihiu harrigarriki sonoroak egiten baititu zuhaitzen adaburuetan. (...) Bi trumoik, elkarren segidan, leherketa bat balitz bezala, hurbil, hamakatik jausarazi naute ia. Gero etorri da berria Urubamba neurrigabe hazten ari dela, berehalakoan abiatu behar izan dugu, gerta zitekeelako itsasontzia bere kasa mugitzen hastea hondo labainkorrean irristatuz (...). Urak, aldixartuta eta zikin, bere bidea jarraitu du gure alboan, eta maila jaitsi egin da pixka bat. Ilargi mehearen argitan, kantatzen eta horditzen hasi dira *campak*, eta denbora gutxian garagardo botilez jositako gudu-zelai bat bezalaxe gelditu da bidezidorra.

**WERNER HERZOG.** *La conquista de lo inútil* liburutik ateratako pasarteak, Bartzelona, Blackie Books, 2012.